

## 2. EZ EGOILIARRA

# 2.2 Nola lortu nire Pass Fêtes eskumuturrekoa ?

*Data honetan argitaratua 03 June 2022*

Lau aukera dituzu zure bestetako Pass Fêtes eskumuturrekoa lortzeko:

### > Interneten [passfetes.bayonne.fr](https://passfetes.bayonne.fr)

Ekainaren 3tik (astelehena) uztailaren 2ra (asteartea), gauerdian eskumuturrekoak doan postaz errezibitzeko aukera duzu . 3,35 € ordaindu behar dituzu (kreditu-txartelarekin ordainduz gero) 1-5 eskumuturreko galdetzeagatik, 4,67 € 6-10 eskumuturreko galdetzeagatik eta 5,78 € 11-15 eskumuturreko galdetzeagatik, 7 € nazioartekoagatik.

Eskumuturrekoen igortzea gutun jarraituan eginga izanen da, eta horri esker lasaitasun gehiago ukanen duzu eta zure bidalketa segitzen ahalko duzu. Segipen hori tolesturan ezarritako barra-kode baten bidez egiten da. Barra kodearen zenbakia bigarren mezu elektroniko batean bidalia izanen zaizu. Zure gutuna [laposte.fr](https://laposte.fr) gunean segitzen ahalko duzu

[passfetes.bayonne.fr](https://passfetes.bayonne.fr) gunetik, zure frogagiriak erregistratu, deskargatu eta bidal ditzakezu

### > Pass'Fêtes eskumuturretako salzaileak

Eskualdeko Turismo bulegoek, tabako-ostatu zenbaitek, supermerkatu eta akanpaleku, Baionako Posta bulegoek... Baiona Hiriri erosten dizkioten eskumuturrekoak birsaltzen dituzte.. Prezioa berdina : 15 €.

[Salmenta guneko zerrenda orokorra ikusi.](#)

Gune hauek Pass'Fêtes eskumuturrekoaren salmentari idekiak dira **ekainaren 10a astelehenatik uztailaren 14a igandera**, Posta bulegoak (ekainaren 3tik uztailaren 13ra, eguerdira).

### **Baionako Posta bulegoak:**

Allées Marines-eko Bulegoa: Nouvelle Poste karrika, 64100 Baiona

Labat bulegoa: Jules-Labat karrika 11, 64100 Baiona

San-Izpirituko bulegoa: Alsace-Lorraine bulebarra 18, 64100 Baiona

Polo-Beyris-eko bulegoa: Polo-ko etorbidea, 64100 Baiona

Santa-Gurutzeko bulegoa : Gaskoinen plaza 3, 64100 Baiona

### > Kutxak hiriko sartzetan

Uztailaren 12tik (ostirala) uztailaren 14ra (igandea), gauerdian, eskumuturrekoak erosten ahalko dira bestaren <https://fetes.bayonne.fr/eu/informations-transversales/pass-fetes-eko-galdera-xokoa/22-comment-obtenir-mon-bracelet-pass-fetes-14983?>

perimetroaren sarreran diren bungalowetan. (ikus planoak).

Kutxen idekitze ordutegia : uztailako ostirala 12, larunbata 13 eta igandea 14: 10:00-3:00 (gaurdi igandean).